


# ELKARRIZKETA



Javier Postigo, Adineko Zerbitzu Burua.

1982 urtean hasi zen Etxe Laguntza Zerbitzua Gipuzkoan Foru Diputazioaren eskutik. Ez zen ezaguna garaian zerbitzu mota hau eta egia esan martxan jarri bazen gehiago izan zen lan baten bidez ekonomikoki egoera larrian zeuden pertsoneri laguntza moduko bat emateko berez, zerbitzuaren bitartez, etxeko eginkizunetan eragozpenak zituztenei laguntzeko baino. Hasiera hartan errezeloz begiratua ere izan zen gure egoera ekonomikoari egokitzen ez zitzaiola eta azken finean lujo bat bezala kontsideratu zutenak, laguntza formula bezala populazioarentzat erabat arrotza zenez onargaitza izango zela pentsatu zutenak ere izan ziren. Egun ordea Gipuzkoako Etxe Laguntza Zerbitzuak ia udal guztietan finkatu dira eta mila eta zazpirehun etxetara heltzen dira.

Javier Postigo Hirugarren Adineko Zerbitzu Bura da Foru Diputazioan eta Antxon Arrieta Etxe Laguntzako Zerbitzuaren arduraduna.



Antxon Arrieta Etxe Laguntzako Zerbitzuaren Arduraduna.


Hasiera batean Plan de Emergencia Social deituriko eskemaren barnean Etxe Laguntza zaharrei eta diskapazitatuei zerbitzu bat eman nahiean baino gehiago eratu zen egoera larrian zeuden zahar eta diskapazitatuei laguntzeko bide bezala. Esan dezagun bi helburuak loturik zetozela. Gero gutxinaka zerbitzuak oraingo bidea hartu zuen premia gorrian zeuden pertsona haientariko asko ez ziren gai beren etxeak eramateko eta are gutxiago besteenak zaintzeko. Profesionalizazioaren beharra, bere zentzurik jatorrean, premiazkoa ikusi zen, pertsonarik aprobeinatuak aukeratzea eta bere eginkizunetarako prestakuntza berezia eskaintzea derigorrezkoa azaldu zitzaigun. Horrez gainera lehendabiziko garaian eskaintzen ziren zenbait zerbitzu mota kualifikazio maila haundiegirik eskatzen ez zutenak, hain zuzen eta leku gehienetan boluntarioen bidez betetzen direnak, konpainia eta kalean laguntzea adibidez, utzi egin ziren bezeroen kopurua gehitzearen arabera, ezinezko bait zen ekonomikoki mantentzea.

Beste herrialde batzuetan boluntario asko inguratzen zaie Etxe Laguntza Zerbitzuei baina gure artean ez dakigu zergatik, eta interesgarria litzateke gai hau atertzea, ez dago horrelako eskaintzarik. Bestalde aitortu beharra dago lan legediak ez dituela errazten hor zehar boluntarioak eta erdi boluntarioak zerbitzu sozialetan integratzeko erabiltzen diren formulak hemen erabiltzeko. Baina dena den zerbitzuaren zenbait osagarri behar beharrezkoak direnak, konpainia bezala adibidez, ezinezkoak dira boluntarioen parte hartzerik gabe.

Mementu honetan Diputazioak konbenio bidez etxe laguntzaren finantziaketa ziurtatzen die Udalei. Udal batzuk Urola bailarakoak gehien bat ez dute konbeniorik zinatutako nahi izan baina orora 70 ingururekin mantentzen dugu. Esan bezala finantziaketa oinarrikoa ziurtatzen zaie biztanle bakoitzeko diru kantitate batekin. 31 pezeta konbeniorik zinatutako nahi izan ez dutenei eta 39 zinatutako dutenei. Hilean noski, eta bi milatik beherako udalei biztanlego mini-

mo hori balukete bezala ematen zaie. Esan bezala hori finantziaketa oinarrikoa da gero Udal batzuk beren aurrekontuetatik diru gehigarria jartzen dute. Ba dira beste batzuk noski Diputazioak transferiturikoa gastatzeko gauza ez direnak. Bada hor Udalen bat hamabi miiroi inguru jasoko dituen eta lau baino gastatuko ez dituen. Noski Udalek gastua justifikatu behar dute eta Etxe Laguntza arloan izan behar du nahi eta nahi ez. Gastatzen ez dutena edo nahi baduzue justifikatzen ez dutena hurrengo hilabetean ez zaie igorritzen.

Ez dakigu zehazki zergatik ez diren iristen Udal batzuk beren eskuetan dagoen diru hori gastatzera. Pentsatzen dugu ohituraren eraginez dela, Udalak ez bait dira orain artean horrelako gauzez arduratu. Bada hor kuestio ideologiko edo filosofiko bat ere nahi baduzue. Leku batzuetan ez da ulertzen zergatik Udalak lagundu behar dion ontzia garbitzen pertsona bati, zergatik ordaindu behar dituen jendearen "neskameak". Horrelakorik entzun izan dut



behin baino gehiagotan. Gezurra dirudi baina Udal batzuetan ez da ulertu oraindik gizarte ekintzan duten erresponsabilitatea eta arlo horretan Etxe Laguntzak duen garrantzia.

Ez dut usté mementu honetan diru iturririk gabeko erresponsabilitateak hartzeko kezka, mesfidantza horren oinarrian dagoenik. Mementu honetan ematen den diru laguntza oinarrikoa, laguntza mínimo bezala ziurtzat jo baitdezakete urtero. Pertsonalari dagokionez berriz Diputazioak hiru formula onartzen ditu: Entrepresa batekin kontratatzea, udalak zuzenki eta legedia beteaz pertsonala kontratatzea, edo ta diru laguntza bezeroari ematea, hau da Etxe Laguntza jasotzen duenari ematea berak langilea ordaindu dezan. Aukeraturiko formularen arabera zerbitzua garestiago edo merkeago izango da eta pertsona gehiago edo gutxiago lagundu ahal izango dira baina Aldundiaren aldetik beti ere finantziaketa ziurtatua duenarik.

Beste arlo batzuetan ere berdin gertatzen da eta Udalek ez dute mesfidantzarik erakusten, alderantziz ahalik eta diru gehien lortzeko ahaleginak egiten dituzte. Ez dezagun ahaztu bestalde Udal batzuk Diputazioaren bitartez jasotakoaz gainera beren aurrekontuetatik ere dirua jartzen dutela, argi dago beraz borondate edo aukera politiko baten ondorio ere badela gizarte lanean sartze edo ez sartze hori. Beren aurrekontuetatik ere jartzen dutenen artean Pasaia, Eibar eta Donostiako kasuak ditugu. Egia esan hiriburuan gertatu zaiena zera da langileak kooperatiba bezala antolatu direla eta horren ondorioz zerbitzua ren orduko kostua doblatu egin dela. Kostu gehitzea ez da izan beraz zerbitzua gehitu delako baizik eta langileen egoera hobea egotzea delako.

Finantziaketa oinarrikoaz gainera Diputazioak beste zenbait laguntza eskaintzen die Udalei hala nola langileen heziketarako kurtsoen antolaketa, informazio orokorra, bereziki estatistikoa,

laguntza juridikoa, etab. Bide batez orientazio zenbait ere ematen zaie, zein izan behar lukeen zerbitzuaren intentsitate maila haundiena adierazi zaie adibidez, edo nola ez den komeni familiakoek profesionalki etxekoek laguntzaren kargu egitea, eta era horretako zenbait. Dena den honi buruz bi eritzi daude. Batzuen ustetan gehiegi sartu gara edo gehiegi zehaztu ditugu gauzak, Udalen arloak inbadituz, eta beste batzuen eritzian berriz askatasun gehiegi eman zaie Udalei zerbitzua antolatzerakoan.

Gure eritziz egunean hiru ordutik gora eskatzen dituen kasu bat ez da Etxe Laguntzaren bitartez konpontzekoa. Beste laguntza modu bat behar du. Baina badira ordu hoiak eta gehiago ere ematen dituzten Udalak. Gai dira horretarako noski. Era berean gure ustez ez litzateke ordaindu behar etxekoa laguntzeagatik, bide horretatik ez bait legoke dirurik munduan boluntarioki edo espontaneoki ematen diren laguntzak ordaintzeko. Egia da batzutan etxekoa besteen

lanak egitera kanpora joan beharrean aurkitzen denean anakroniko dirudiela Udale-txetik bere aita edo ama zaintzeko eta etxeko garbi-ketak egiteko beste norbait bidali beharra. Baina hala ere komenigarriago deritzai-gu prozedura hori.

Dena den lehen esan dugun bezala badira udalak etxekoari etxekoak zaintze-arren kanpora joango balira bezala ordaintzen dienak. Diputazioak jarri duen muga bakarria Etxe Laguntzan gas-tatzen den dirutik ehuneko bost baino gehiago ez iza-tea da etxeko bitartez betetzen den laguntza or-daintzeko erabilgarria.

Esan daiteke beraz jes-tioa eta antolakuntza Uda-len zeregina delà. Udalek erabakitzen dute zein lagun-tza eman nori eta noren bidez. Diputazioak gomen-dio batzuk egiten ditu eta betekizun bat baino ez du ezartzen, zerbitzua eskaini behar duela Etxe Laguntza-rako transferitzen zaionetik eta ez duela diru laguntza zuzenik eman behar.

Etxe Laguntzak osasun estrukturarekin loturik egon behar luke. Hori izango litzateke jendeak planteiatu-rik dituen prolema asko kon-pontzeko modurik hobere-na. Baina oraingoz Diputa-zioak eta udalek ezin dute mediku zaintzarik asumitu. Behar bada transferentzien ondorioz errezagoak izan daitezke harremanak Osaki-detzarekin eta etorkizunean bi esturturek Etxe Lagun-tzarena eta Sanitariaoa, lotu-rik eta koordinaturik funtzio-natuko dute, era horretan bi eginkizunen mugan dauden zenbait prolema konpondu-ko direlarik.

Batzuetan bezeroaren e-txean zenbait premia eta

desegokitasun antzematen dira berez kaltegarriak iza-nik etxe laguntza dorpetu eta garestitu egiten dutenak. Esate baterako etxe batean garbiketa egin behar bada eta bezeroak garbigailua iza-teko modurik ez badu duda-rik gabe errentagarria da etxe horretan tresna hori sartzea. Aide hortatik Uda-lek eskubidea osoa dute Etxe Laguntzaren partidatik gas-tu hoietarako beharrezko zaiena etxeak txukuntzeko moldaketa oinarrizkoak egi-teko etab. erabiltzeko, bai-na apenas era horretako gasturik egiten duten.

Garai batean bai oso modan egon zen Tele Alar-ma Zerbitzua. Gipuzkoan berrogei jarridira. Dakizue-nez funtsean sistema honen abantaila zera da botoi bat zakatuz SOS DEIAK "in linea" jartzen déla eta hama-bost metro inguruko ingu-runean bezeroak soinean daraman aparatu baten bi-dez ez duela telefonorik ikui-tu beharrik eta lurretik edo ohetik hitzegin dezake beraz eta gainera ozenki entzun-go dituela hariaren bestal-dekoak. Baina prolema bat du, zerbitzua garestia da bezeroarentzat honek bi hila-betez behin 1.100 pezeta ordaindu behar baitdikio telefonikari. Beharbada ho-rregatik sistema instalatu zitzaientatik zenbait baja jaso ditugu. Eta ez dakit nik, beharbada diru hori Dipu-tazioaren kargu hartu behar-ko litzateke kasu batzuetan.

Hain zuzen ere orain Komunitate Europearraren diru laguntza bat jaso dugu programa horretarako, eta estudiatu egin beharko dugu etorkizunerako antolaketa modua. Dena den denbora asko baino lehen behar bada Telefonika berak jarriko du sistema hori edo antzekoren bat.

Etxe Laguntza Zerbitzua-ri dagokionez orora nik esango nuke oso azkar, azkarregi beharbada eraiki déla eta hemendik aurrera finkatuz joango déla. Orain-goz ikusten dugun joeraren arabera lagunduen kopurua gehituz joango déla, bezero bakoitzak jasotzen dituen laguntza orduak gutxitu egingo diren neurrian. Gure estatistikek interpretatzea erreza ez den zenbait datu oso bitxiak azaltzen dizki-gute, eta behar bada hortik ere lort dezakegu etorkizu-na nondik ñora joango den norakoa izango den jakitea. Egun bezeroen artean gehie-nak ehuneko 74 hain zuzen emakumeak dira, badakigu herri txikietan ordu gehiago ematen direla herri haundie-tan baino eta hori handia-go izanik hiri haundietan bakarrik bizi diren kopurua. Konkretuki 25 mila biztan-letik gorako udaletan ehu-neko 43 bizi dira bakarrik etxe laguntzaren bezeroren artean noski eta milatik beherakoen artean ehune-ko 18 besterik ez. Horrek esan nahi du faktore sozia-lak aldatuz joango diren neu-rrian beharrak desplazatu eta aldatu gingo direla.

Ezin dugu esan oraingoz, berez beharko lukeen beza-la, etxe laguntzaren medioz zaharren egoitzetarako eska-ria gutxitu ote den. Egoit-zen Plana hain zuzen ere aurten amaitzen denez orain litzateke mementoa alderdi hortatik beharrak ñola eta zergatik aldatu diren jakite-ko. Dena den Plana bere osotasunean bete da, esan nahi dut alderdi hortatik ez déla zereginik ikusi eratu zenean etxe laguntzarik ez bazegoen ere. Ez dakigu beraz nolako eragina izan duen Etxe Laguntzak. Behar bada baja ematen dutenen azterketaren bitartez argita-sunen bat lortzea izango genuke. Baina ez da egin eta mentuz ez dago jakiterik.

# LA FINANCIACIÓN DEL SERVICIO



En el actual estadio de desarrollo del Servicio de Ayuda Domiciliaria, llegados a un punto en que, sin vislumbrarse todavía el techo de la cobertura de las necesidades, unas seis mil personas se encuentran ya en la Comunidad Autónoma Vasca directamente implicadas en el S.A.D., bien como usuarios o como trabajadores, parece razonable esperar del estudio de sus principales magnitudes económicas algunas aportaciones —es de desear que no muchas— que permitan aumentar el grado de coherencia de un servicio que resulta entre nosotros prácticamente recién nacido, a pesar del tamaño y el peso adquiridos.

Nuestro propósito en este caso es bien modesto; nos interesa simplemente poner de relieve que existen diferencias enormes en la estructura de financiación de los S.A.D. de unos y otros municipios. Es evidente que

estas diferencias no son sino el reflejo de otras más profundas —diferentes valoraciones políticas, económicas y sociales del servicio, concepciones más o menos municipalistas de su carácter, distinto nivel reivindi-

cativo de los trabajadores, los usuarios y la población en general...— pero profundizar en las razones, intentar detectar las causas de este fenómeno, es algo que rebasa los fines de este artículo.